

BALIO PROPOSAMENA:

Jakinean gaude gaur egun denbora funtsezkoa dela, eta hau galtzeko prest ez gaudela. Erosketak egiteak, familia askori denbora asko suposatzen die, batez ere, prezioak kalkulatzea aurrekontutik atera ez dadin. Zorionez, gure karro berrietan txertatuko ditugun kodigo barra elektrikoekin denbora asko aurreztea lortuko da eta bizi-kalitate hobe bat edukitzea.

Gure produktuak supermerkatuko bezeroei praktikotasuna eskainiko die gure diseinuari esker. Erosketak egiterakoan efizienteagoak izateko aukera, gure sistemari esker azkartasunean irabaziko baitute. Bestalde, supermerkatuei aberastasun handiagoa suposatuko die, izan ere, gure produktu berritzaile hau bezero gehiago erakartzeko aukera paregabea izango da. Gainera, gure produktuaren berritasunaren abaintaila da lehiakide eza, guk soilik eskeiniko baitugu produktua.